



BARREN
TOKIKOM



**Dultzainaren doinuak
50 urtez herriko kaleetan**



Jose Maria Muruamendiaraz Bastarrica

2022ko urtarrilaren 16an hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere

*Gurasoen lekukoa hartu eta
Elgoibarko gozogintzara berrikuntza ekarri zuena.
Lan gogorra eta plazera uztartzen artista zena.
Familiakook irribarre batez gogoratuko duguna.*

Etxekoak



Mercedes Camarero Vicario

2022ko urtarrilaren 16an hil zen, 83 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

*Familia eutsi duen zutabea izan zara,
etxeko poza,
asko maiteko zaitugu beti.*

Etxekoak



X. URTEURRENA

Mari Carmen Gabilondo Etxabe

2012ko urtarrilaren 19an hil zen, 58 urte zituela.

*Nire maitea ez egon sustoz,
biziko gara munduan gustoz.
Palazio bat eginen dugu
zekalez edo lastoz.
Balkoia ere basa lizarrez
teilatua belar iharrez.
Hala goizean enkargatu da
Baionako Pierres.*





ANE KORTABERRIA

Ikasle ekintzailea

Baztertua sentitzea marroi bat da

Pertsonak gara eta bizirauteko, pertsonekin harremantzea ezinbestekoa dugula esatera ausartuko nintzateke.

Izan ere, guztiz aurkakoak diren bi adierazpenen artean bueltaka nabil azkenaldian. Batetik, gizarteari dagokionez inklusioa gero eta gehiago lantzen ari garela esango nuke, baina bestetik, gizarte polarizatu batera gerturatzen ari garela dirudi (Covid-19 "ditxosoa" ren kontuarekin, esaterako). Zuek zer diozue?

Beldurra da aginte nagusia askotan

eta tribu baten parte sentitzeko edozer egiteko gai gara. Badaude pertsona "mitiko" batzuk elkartzen diren inguruaren arabera kamaleoi batzuk bezala izaera aldatzen dutenak adibidez. Halakoetan oso erraz ezartzen dugu "pertsona faltsu" etiketa, baina, egia esan, ziur denok egin dugula antzekorik noizbait. Eta, zer? Ez gara perfektuak eta ez dugu perfektuak izan beharrik. Auzia, denean bezala, muturreko egoeretara ez jotzea da. Hau da, gu geu izateari ez lagatzea besteen onarpena izateko helburarekin, besterik ez.

Honekin lotura zuzena du gaur egun sare sozialetan askotan egiten den erabilerak, baina tira, gai hau beste baterako lagako dugu, bestela

lagunek bidaltzen duten bost minutuko podcast-a bezala luzatuko da idatzi hau.

Beraz, esandakoarekin jarraituz, nire ustez denon artean sortzen ari garen gizarte aldakor honetan, gainerakoekin dugun harremantzeko modua zein den uneoro gogoan izatea ezinbestekoa da. Pertsonen artean sortzen ditugun loturak uste baino aberasgarriagoak izan daitezke eta horretarako, emateko eta jasotzeko prest egon behar gara.

Beharrezko laguntza eskatzen denean ematea gestu polita da, baina laguntza hitzez eskatzen ez bada? Aurkitu moduak eta probatu, agian uste baino gehiago lor dezakezu zure partetik eta gizarte inklusiboago bat lortu.

"Badaude pertsona batzuk elkartzen diren ingurunearen arabera kamaleoi batzuk bezala izaera aldatzen dutenak"



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Sustatzailearen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izogirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► **DEBABARRENA BERPIZTEKO
PONENTZIAREN AGERRALDIAK
ZUZENEAN IKUSTEA
DEBEKATU DUTE**

Abiatu dira aste honetan Eusko Legebiltzarrean Debabarrena eskualdea berpizteko ponentziaren lanak. Astero-astero eta eskualdeko alkateekin hasita, 96tik gora pertsona eta ordezkari publiko arituko dira txandaka beren diagnostiko, iritzi eta proposamenak luzatzen hurrengo asteetako agerraldietan.

Ondoren, Legebiltzarreko berariazko batzordeak, guztia baloratu eta ondorio eta proposamenak aurkeztuko ditu Plan Estrategikoko batean non eskualdean hurrengo urteetan egingo lirartekeen inbertsio batzuk erabakiko diren.

Garrantzia handiko gaia da, beraz, eskualdeko bizilagunentzat. Hori dela eta, egingo diren agerraldiak publikoak izatea eskatu dugu EH Bildutik. Izan ere Legebiltzarrak saioak internetez emateko gaitasuna du eta halaxe egin du azken bi ponentzietan: Hezkuntza eta Trantsizio Ekologikoa.

Publikoak izatea eskatu dugu EH Bilduren ustez herritarren partaidetza erraztea demokraziaren oinarritzko printzipioetako bat delako eta hori gerta dadin, zuzeneko informazioa bideratzea instituzio publikoen betebeharra dela uste dugulako.

Baina zoritzarrez, agerraldiak zuzenean ikusteko interesa eduki dezaketen Debabarreneko herritarrek ezin izango dituzte ikusi, EAJ-k eta PSOE-k agerraldiok publikoak ez izatea erabaki dutelako.

Dena den, hurrengo aste eta hilabeteetan Debabarrena BERPizteko Ponentziaren lanen berri publikoki ematen jarraituko dugu EH Bildutik.

Elgoibarko EH Bildu

► **ETXEGIÑA TALDEAREN SANTA
ESKEA BERTAN BEHERA**

Aurten ere, pandemiak gure bizitza baldintzatzen jarraitzen du. Iaz kalean kantatzeari uko egin behar izan genion, aurten zuek denok Elgoibarko kaleetan zehar izango ginen esperantzan. Tamalez, pandemiak gure artean dirau, eta

baldintzak ez dira egokiak Etxegiña Taldearen santa eskea ohiko moduan ospatzeko. Hori dela eta, pena handiz, aurten ere ezingo dugu urteroko jarduera ospatu, eta santa eskea gogoratuko dugu beste medio batzuk erabiliz.

Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, jaso dugun animo guztiengatik, eta ziur gaude berandu baino lehen indar berrituta aterako garela, 2025ean ospatuko dugun 100. urteurrena jomugan.

Aurten ere, iaz bezala, kontu korrontea irekiko dugu, nahi duenak bere ekarpena egin dezan egoera zaurgarrienean daudenei laguntzeko. Dakizueenez, urtero batzen den dirua Caritasi bideratzen zaio. Iaz enpresek eta partikularrek egindako ekarpenen bidez, 785 € bideratu genituen. Hau da kontu korronte zenbakia: Laboral Kutxa: 3035 0007 23 0071019042

Elgoibarko kaleetan laster elkar ikusiko dugu. Bitartean, zaindu zaitezte.

Santa Eskeko Etxegiña Taldea

m mendaro
ikastola

MATRIKULA ZABALIK
Urtarrilaren 17tik 28ra

**Telefonoz deitu
txanda hartzeko**

943 756 141



Gizonezko bat erreskatatu zuten domekan Karakaten helikopteroz, bere autoak azpian harrapatu zuelako

Karakate gainean aparkatuta zegoen auto batek bete jabea harrapatu zuen azpian, eta helikopteroz eraman zuten ospitalera. Bide bazterrean zegoen aparkatuta autoa, belar gainean, eta asfalto gainera ateratzeko saiakeretan ari zirela gertatu zen istripua. Bat-batean, autoa aldapan behera mugitzen hasi zen eta autoaren jabea, 40 urteko gizonezkoa, harrapatu zuen. Pinu baten kontra jo ostean geratu zen autoa. Anbulantziak, ertzainak eta suhiltzaileen bi kamioi bertaratu ziren Karakatera, eta baita Osakidetzako helikopteroa ere. Gurutzeetako ospitalera eraman zuten gizonezkoa, helikopteroz. Lekukoaren arabera, zauri arinak zituen eta dena susto bat izan zen.



Debabarreneko pentsiodunak Eibarren bildu ziren zapatuan, pentsio duinen aldeko manifestazioan

800 bat lagun elkartu ziren zapatuan Eibarren pentsio publiko duinak aldarrikatzeko manifestazioan, baita elgoibartarrak ere. Protestaren amaieran, gogora ekarri zuten lau urte dirrela pentsioen sistema publikoa defendatzen hasi zirela, eta ohartarazi zuten "behartuta daudela" borrokan "tinko" jarraitzea harik eta pentsioak aurrekontu orokorrean "legez blindatzea" lortu arte, ikusita "gobernu honen zati handi batek erreberentzia" egiten diela "botere ekonomikoari eta finantzarioari". Gaineratu zuten Pedro Sanchezek Toledoko Ituna negoziatu duela UGTko eta CCOOko ordezkariekin pentsiodunak kontuan hartu gabe. Esan zuten ez dutela lan erreforma indargabetu eta erretiro adina 67 urtera atzeratu duela.



Gaur egingo dute Gabonetako kanpainaren zozketa, Mendaron

Gabonetako kanpainaren zozketa gaur egingo dute Mendaron, 20:00etan, San Agustin kulturgunean. Abenduaren 14tik urtarilaren 10era bitartean 10 eurotik gorako erosketak egin zituzten herritarrak sartuko dira zozketa horretan. Aurten, ondorengo denda eta zerbitzuek hartu dute parte: Roteta, Coviran, ArtFruit, Morroskillo, Itxasertz, Perosanz, Puxika, Farmazia, Anton, M^aAsun, Saint Gerons, Leire, Lutximak, Ederki, Nahia, Olatz ileapaindegia eta June Galle-tiak. Sari banaketa ekitaldian Jon Txiki umoregileak bakarriketa saioa eskainiko du.

Amaitu dituzte Basarteko skate parkea handitzeko lanak

Skate parkearen ingurua eraberritu du Udalak: Picnic gunea bat sortu dute, plastiko birziklatuz egindako bi mahai jarrita, bi zakarrontzi eta pertsonentzako eta txakurrentzako ura edateko egokia den iturri bat ere ipini dituzte. Udaletik jakinarazi dutenez, 30.000 euroko inbertsioa (BEZ gabe) egin dute skate parkea handitu eta eraberritzeko. Zut Skateparks enpresak egin ditu lanak, 2018an parkea eraiki zuen enpresak. Patinatzeko 'street' pista bat eraiki dute, pista lau bat, hiru plano inklinatu, zintarri bat eta baranda bat ere ipini dituzte trukoak egiteko. Erabiltzaileen eskaerari erantzunez, Street pista berria lehenagotik zegoen bowl erako pistarekin ere lotu dute. 130m²-ko azalera du guztira orain skate parkeak. Partaidetza bidezko aurrekontuetan herritarrek euren botuekin aukeratutako bost proiektuetako bat izan da hau.



Covid pasaportearen aurkako kontzentrazioa egingo dute gaur, Kalegoen plazan

Abenduaren 14tik aurrera derrigorrezkoa da Covid 19aren ziurtagiria hainbat leku itxitan sartzeko. Besteak beste, kirol-gune itxietan, kultur aretoetan eta ostalaritza establezimenduetan sartzeko eskatzen dute. Elgoibarko Iratzargailua taldeak deituta, pasaportearen kontrako elkarretaratzea egingo dute gaur, 20:00etan, Kalegoen plazan.

Osakidetzako "gainkarga" eta "utzikeria" salatu dituzte osasun zentroyen aurrean

Osasun zentroyen atarietan elkarretaratzek egin zituzten joan zen astean, lehen mailako arretak duen "kolapso" egoera eta "gainkarga" salatzeke, eta Elgoibarko zein Mendaroko anbulatorioetako atarietara ere batu ziren protesta egitera. Osasungintzako sindikatu guztiak (SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT) deitutako protesta ekitaldia izan zen. Osakidetzan gertatzen ari dena, ez dela pandemiaren ondorio azaldu dute sindikatuek. "Egungo osasun-krisiak are gehiago larritu du egiturazkoa eta pandemiaren aurrekoa den egoera. 2019an, lehen mailako arretako langileek hiru greba egun egin zituzten garai hartan bizi zuten egoeraren larritasuna salatzeke. Bi urte geroago, egoerak okerrera egin du", salatu dute. Osakidetzaren aurrekontua handitzea "premiatzkoa" dela aldarrikatu dute bost sindikatuek.



Ane Beitia eta Iñaki Arregi Elgoibarko eta Mendaroko alkateek eskualdea biziberritzeko txostenean hartu dute parte



Ane Beitia eta Iñaki Arregi Elgoibarko eta Mendaroko alkateek agerraldia egin zuten eguaztenean Eusko Legebiltzarreko batzordean, Debabarrena ekonomikoki suspertzeko txostena eratzeko.

Elgoibarko alkateak hiru ideia nagusitan jarri zuen fokua: hiri-eremua, industria eta enplegua eta formakuntza-talentua. Hiri eremuan argi utzi zuen hirigune historikoak duen berritzeko beharra, eta irisgarritasuna ere oinarritzotzat jo zuen. Deba ibaiaren ingurua leheneratzea ere garrantzitsua da Elgoibarko alkatearentzat, baita bidegorri eta garraioen sarea ere. Industriari erreparatuz, Elgoibarko Udala hiru ildo estrategikoei heltzen saiatu zen, herriko enpresen etorkizuna sendotu, modernizatu eta bermatzeko, eta formazioa ere lehentasunen artean aipatu zuen Beitia.

Iñaki Arregik ere industrian jarri zuen lehentasuna. Bere ustez, Debabarreneko industriaren indar-galerak, biztanleria-galerak eta hiri-degradazioak eskualdearen degradazioa sakondu dute: "Azken datuen arabera, 12 urtetan 200 enpresa industrial galdu ditugu, %31. Biztanleriari erreparatuz, Debabarrena osatzen dugun zortzi udalerrietan 73.000 biztanle bizi gara, duela bi hamarkada baino %15,6 gutxiago. Gaineratu zuen "aukerak eskaintzeko eta Debabarreneko herritar guztien ongizatea bermatzeko apustua" egin behar dela. Horrez gain, alkateak berretsi zuen "sarrera bakarra duela Mendarok. Mendarora zubi batetik baino ezin da iritsi, horrek dakartzan arriskuekin: istripuak edo uholdeak direnean, adibidez. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, zubi berri bat proiektatzen ari gara, udalerritari eta tokiko enpresei zerbitzua emateko".

Covid funtsetik eratorritako 392.903 euro jasoko ditu Elgoibarko Udalak, eta 66.800 euro Mendarokoak

Pandemiak aurrekontuetan eragindako kalteei aurre egiteko ezohiko diru ekarpena jasoko dute Hego Euskal Herriko erakundeek Espainiako Estatutik. Gipuzkoako Foru Aldundiak 62,9 milioi euro jasoko ditu, eta horietatik %40a (25,1 milioi) banatuko dute probintziako udalen artean. Elgoibarko Udalak 392.903 euro jasoko ditu, eta 66.800 euro Mendaroko Udalak. Herritarrei emandako oinarritzko zerbitzu publikoak "finantzatzeko eta indartzeko" erabili ahaliko dute udalek diru hori, hala nola, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak. Baina horiez gain, dirua "beste eskumen batzuk baliatzeko ere" erabili ahaliko dutela zehaztu zuen Markel Olano diputatu nagusiak

Bideo jolasei buruzko tailerra, otsailaren 1ean

Udal Ludotekak, Udal Gaztelekuak eta Elgoibarko Izarrak bideo jolasei buruzko tailerra antolatu dute, Udalaren laguntzarekin. Haur eta nerabeen gurasoentzako saioa izango, eta besteak beste, gai hau kudeatzeko baliabideak eta tresnak eskainiko dizkiete. Gehiegizko erabileraren ondorioak aztertuko dituzte eta konexio denbora erregulatzeko argibideak ere emango dituzte. Jostailu erakusketarekin batera egitekoak ziren tailerra, otsailaren 1ean izango da, 18:30ean, Aita Agirreko Areto Nagusian. Interesatuak urtarrilaren 26rako eman behar dute izena labur.eus/mONBq helbidean edo www.elgoibarkoizarra.eus webgunean.

'Berbaldixa', Aldenik Alden egitasmoan

Atxutxiamaikako Aldenik Alden egitasmoaren barruan *Berbaldixa* antolatu dute urtarrilaren 29rako, Udalaren laguntzarekin. Jolas eta dinamika desberdinen bidez, otsailerako ekintzak adostea du helburu saioak, eta haurren nahiak eta gustuak ezagutz, haien intereseko ekitaldiak antolatuko dituzte. 16:00etatik 20:00etara izango da saioa, doan, Aita Agirre eraikinean. Interesatuak urtarrilaren 23ra arte dute izena emateko epea. Informazio gehiagorako eta izena emateko: www.elgoibarkoizarra.eus

'Hazi hezi' aldizkaria, jaioberrien gurasoentzat

Haur jaioberria erroldatzerakoan, umeen kanta-jolas DVDaz gain, *Hazi Hezi* aldizkaria banatuko du Udalak. Nahi duenak urtebeteko harpidetza doan eskuratzeko aukera ere izango du. Gurasoei zuzenduriko transmisio kanpainaren barruan, zorion gutuna, diptikoa, kantu-jolasen DVDa eta *Hazi Hezi* aldizkaria banatuko dituzte aurreantzean.



Hasierako dultzaineroak ezkerrean: Ricardo Gorriti, Victor Zubiaurre eta Txomin Mujika.
Eskumako argazkian: Aitor Nova, Txomin Mujika eta Ricardo Gorriti.

Dultzaina zaharretik aire berrietara

Jai askotan entzuten dugu dultzainaren soinu berezia eta Elgoibarren nola falta. Nafarroako dultzaineroak etortzen ziren San Bartolome jaiak alaitzera lehen, baina mende erdia beteko da aurten Elgoibarko dultzaineroak hasi zirenetik. Aurten ere makina bat aldiz beteko dituzte dultzainaren soinu altuek eta danborraren hotsek herriko kaleak, 50 urte ez baititu edozein musika taldek betetzen. Bihar, zapatua, Altzolatarren Dorretxea filatelia taldearen eskutik omenaldia jasoko dute dultzaineroek 13:00etan, Kultur Etxeko sotoan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Natibitate eguna zen, 1972a, eta goizean elgoibartarrek harritu zituen doinu batek jantzi zituen elgoibartarren belarriak: dultzaina eta danbor hotsak, hain zuzen ere. San Bartolome jaietan entzuten zen orduan gaita Nafarroako dultzaineroen eskutik, baina Gabonetan soinu hori jotzera ez ziren nafarrak etorri, Elgoibarko hiru gazte baizik: Victor Zubiaurre eta Txomin Mujika dultzainarekin, eta Ricardo Gorriti danborrarekin. 50 urte beteko dira urte bukaeran egun hartatik, baina urte hasieratik gogoan izan nahi dute urteurrena. Hori dela-eta Txomin Mujikak hasiera hartako hainbat kontu kontatu dizkigu: "Gu gazteak ginela jaietan bakarrik entzuten zen dultzaina. Lizarratik etortzen ziren dultzaineroak eta oso ondo jotzen zuten, goizeko dianatik iluntzeko dantzaldia bukatu arte. Haiek joaten zirenean tristura sentitzen genuen, beste urtebetez zain egon behar ginelako".

Elgoibarko dultzaineroen hirukoteak beti izan du musikarekin lotura: bandan aritutakoak, txaranga sortu zuten, eta txistua ere jotzen zuten. "Dultzaina asko gustatzen zitzaigun eta entzute hutsak inbidia eragiten zigun. Musika tresna bat gehiago da guretzat dultzaina, baina era berean, ezberdina; oso berezia. Dultzainaren doinu garratz horrek zoratu egiten gintuen, sekulakoa zen guretzat, barruraino sartzen zitzaigun", dio Txomin Mujikak. Dultzainak lotura handia zuen jaiekin eta hori ikusita nahi zuten jotzea. "Zaila zen orduan gaita jotzen ikastea, ez ge-

neukan modurik, ezta gaitarik ere, baina erronka piskanaka gaingitu genuen". Hala ere, gakoa zaletasuna izan zen dultzaineroen esanetan. "50 urte pasatu dira eta bidean Victor joan zen arren, gogoa eta zaletasuna izanez gero, ni ziur nintzen mende erdira iritsiko ginela eta hala izan da. Gurea ez zen bolada bateko kontua".

50 urteren ostean, hasierako garai haiek ezin izan ditu ahaztu eta Txomin Mujikak lehen saio hura gogoan du oraindik. "Inuzenteak ginen eta irteteko prest geundela pentsatu genuen. Orduko grabaketarik ez da egongo, baina ez dut uste soinu onik izango zenik. Hala ere, gure ilusioa sekulakoa zen".

DULTZAINA ESKASEKIN IKASTEN HASITA

Hasteko eta irauteko, noski, ikasi egin behar zen, eta garai hartan nafarrak nagusi zirenez, elgoibartarrek pauso asko ziztuzten emateko. Txominen esanetan, dultzainero nafarrei soinu edo tonuei buruz galdetu arren, ez zuten erantzuten, eskulibotasuna gorde nahi zutelako. "Uste zuten hori zabalduz gero beren negozioa pikutara joango zela".

Baina lacunza anaiek gaita jotzen ikasteko metodo bat kaleratu zuten eta, txistuarekin bazen ere, egin zituzten Elgoibarko dultzaineroek ikasteko ahaleginak. 1951n lortu zituzten pare bat dultzaina. "Dultzaina eskasak ziren, baita Valladoliden erositako ahokoak ere, baina horrekin ekin genion. Gorritik meto-



“Dultzainaren doinu garratz horrek

zoratu egiten gintuen,

sekulakoa zen guretzat,

barruraino sartzen zitzaigun”

doko planoak hartuta, Gerardo Garate *Katalori* eskatu zion danborraren zilindroia egiteko”, esan digu Txomin Mujikak. “Ez genuen irakaslerik, eta gure hankasartzeak hor gelditzen ziren. Alboan zuzenketak egiten dituen norbait izanez gero, sekulako alde dago”. Hala ere, ahal zuten moduan aurrera egin zuten.

LACUNZAREN ETA ALKATEAREN LAGUNTZA

Lehen pauso haiek ematen ari zirela, Javier Lacunza ezagutu zuten, Elgoibarren askotan egondako dultzaineroa, gerora Elgoibarko Bandarekin jo eta herriko dultzaineroekin diskoa grabatuko zuena. “Aparteko gaiteroa zen eta gaita eta pita egile bikaina. Gure pitak zakarrontzira bota behar izan genituen. Javier ezagutu izan ez bagenu, ez ginateteke gaitero izango. Sarri joan izan gara Iruñera, Lacuzarengana ikastera. Askotan gauza txiki bat esatea nahikoa da hobera aldatzeko”.

Pitak egiten erakutsi zien Lacunzak, baina ganorazko dultzainak falta. Hala ere, badirudi patuak lagundu ziela. 1976an Eibarren bandaren kontzertua izan zen eta zuzendariak eskatuta, tartean dultzaina jo zuten elgoibartarrek. Jaime Arrese zen orduan alkate eta kontzertu ostean, beraien-gana gerturatu zenean esan zioten instrumentu haiekin ezin zutela hobeto jo. “Berriak erosteko esan zigun, baina garestiak zirela eta ezin genuela esan genionean, erosteko eta faktura berari pasatzeko esan zigun”. Jaime Arreseri esker bi dultzaina berri eskuratu zituzten. “Tresna ona edo txarra izan, gaizki joz gero, beti gaizki, baina ona edukitzea gauza ederra da”, Mujikaren esanetan.

ENTSEGUAK LEHEN ETA ORAIN

“Jendeak pentsatzen du zailena atzamarraren mugimendua dela, baina ahokoa da gakoa”. Gainera, ahoko berriekin ikasten hasi eta bi hilabete behar izan zituzten horretarako. Dultzaina jotzeko indar handia behar dela uste du jendeak, baina gaur egun hainbestekoa ez dela esan du Txominek. Orduan, ordea, “esfortzu handia behar zen, atletismoan aritzen zirenen parekoa. Mujika fundizioan entseatzeko genuen eta badaezpada bi aukeri ipintzen genituen gure alboan noizean behin eseritzeko, ia zorabiatzera iristen ginen eta. Astakeria bat zen”.

Dultzaineroen jardunak ere badu beste zailtasun bat Txominek ustez: hirurek batera jo beharra. “Nik txistua bakarka entseatu dezaket edo nonbaiten jo, baina dultzaina batek

bakarrik ezin du jo; hirukotea ezinbestekoa da. Norbaitek kale eginez gero, ezin. Bazen musikari bat esaten zuena: Egun batean entseatu ezean berak igartzen

zuela eta bitan entseatzeko ez bazuen, publikoak. Dultzainarekin berdin gertatzen da. Egun batzutan jo gabe egonez gero, ahokadurako muskuluak makaldu egiten dira”.

Hasieran fundizioan entseatzeko zuten, gero Aita Agirre erakinean eta gero bi dultzaineroak Santa Klaran bizi zirela aprobetxatuz, Txominen etxean. Orain Bandako lokalean. “Hasi ginenean egunero entseatzeko genuen, gero hiru entsegu astean eta orain gutxiago, bakoitzak bere kabuz batzuetan. Baina entsegua beharrezkoa da; konstantziaren faltan gaizki”.

ETORKIZUNA

Dultzaina taldean asko ikasi eta asko jo zuten. Victor Zubiaurre gaixotu zenean taldea zintzilik gelditzeko arriskua ikusi zuten, baina aurkitu zioten arazoari irtenbidea. “Aitor Nova ari zen bere kabuz dultzaina jotzen ikasten eta nik noizbait entzun izan nuen Realaren himnoa jotzen. Guk ez genuen ezagutzen, baina berak esan izan digu ume zela gure ondoan ibiltzen zela





erraldoi eta buruhandiekin batera. Berarekin harremanetan jarri eta gureganatu egin genuen". Gaur egun Mujikak, Novak eta Gorritik osatzen dute hirukotea.

Hasierako garaietan herritarren bat prest egoten zen danborra jotzeko Gorritik huts egin ez gero, baina dultzaineroren bat faltaz gero kanpotik ekartzen zuten. 50 urteko ibilbidean izan dira dultzaina jotzen hasi diren herritar gazteak. Batzuk taldea osatu zuten, baina ez zuten askorik iraun. Hala ere, noizbait gure taldeko hutsuneak bete izan dituzte emanaldiren batean. Azken urteetan bandako hainbat musikaririk ikasi dute dultzaina jotzen eta guk huts eginez gero badaukagu gure lekua zeinek bete".

Entseatu eta gogoia ipiniz gero, badago non eta zer joa eta denetarik jotzeaz gain, toki askotan jardun izan dute Elgoibarko dultzaineroek. Nafarroan dultzainak arrakasta handia dauka eta han jo izan dute Nafarroa Oinezan, San Ferminetan... Donostiako jaietara ere lehen urtero joaten ziren erraldoiekin jotzera; Gasteizera ere asko joan izan dira; eta Euskal Herritik kanpora ere ibili dira, azken urteetan: Katalunian Bergarako erraldoi taldearekin; Torrejon de Ardozen, Palentzian... Baina San Ferminak eta Guardiako Gaiteroaren Eguna dituzte gustukoenak, azken horretan lagun asko elkartzen direlako. Hainbeste urtetan joan direnez, ohitura bihurtu da, baina hasieran, Guardia, Gaiteroaren Eguna joaten hasi zirenean urduri egoten ziren: "Azterketa baten modukoa zen. Batzutan mahasti artean autoa utzi eta entseatzeko egoten ginen muturra berotzeko Guardia iritsi eta hotzean ez hastearren. Gainera, erresistentzia beharrezkoa zen pieza bat bestearen atzetik jo eta jo aritzeko deskantsurik gabe. Orain barre egiten dugu, baina orduan ardua handia izaten zen guretzat". Pasadizoekin hasita San Fermin Txikito Egun batez Iruñean gertatutakoa gogoratu du: Erraldoiekin jotzeko deitu ziguten eta egun batzuk lehenagotik urduri egon ginen. Gurea hirugarren erraldoia zen eta talde bakoitzak balsa jo behar zuen besteak begira zirela eta Iruñean akatsen bat eginez gero, konturatu egiten dira. Hirugarrenak ginen, baina aurreko bi taldeak berandu iritsi zirenez, lehenengoak jotzeko esan ziguten. Urduri baina ondo joa genuen! Eskerrak!".

Sarrien, ordea, Elgoibarren jotzen dute, noski. Sanbartolomeetan lehenengo egunetan Lizarratik etorritako Elizaga anaiek jotzen zuten eta jaiak bukatu arteko azkenengo egunetan hasi zen jotzen Elgoibarko hirukoa. "Baina elizagatarrak piskanaka lagatzen joan ziren, eta kanpotik beste dultzainero batzuk ekartzeko hasi zirenean kultura zinegotziari esan nion ordura arte



errespetatu genuela kanpotik beti berdinak ekartzea, baina herrian dultzaineroak egonik, guk jotzeko prest geundela. Proposamena onartu ziguten". Sanbartolomeetan ezezik herriko beste hainbat jaitan ere jotzen dute eta Bandak kontzertua daukan domeketan herriko kale eta auzoetan zehar ibiltzen dira. "Herritar batzuk hasi ziren esaten beti kalean jotzen genuela eta auzoetakoek ez zeukatela entzuteko aukerarik. Arrazoia zeukaten, eta aurrerantzean auzoetara joatea pentsatu genuen. Dagoneko auzo batzuk pasatu ditugu: Urazandi, Artetxe, Sigma, Santa Klara".

Soinu altua eta indartsua dultzaina eta danborrarena, eta erreperitorioa denetarikoa: dianetarako abestiak, erraldoiekin kalejirak eta balsak, horiek dira gehien bat. "Pila bat partitura dauzkagu eta batzuk guk egindakoak ere badira. Horiek beste talde batzuk jotzen entzuteak poza ematen du. Bandak eta dultzaineroek elkarrekin egiten ditugun emanaldiak ere oso gustuko ditugu".

IRAILEAN OSPAKIZUNA

50 urte, ez da ez ahuntzaren gauerdiko eztula. Urteurrena ofizialki Natibitate egunean beteko duten arren, urte osoan barrena entzungo ditugu dultzaineroak han eta hemen. Baina izango da jarduera berezi bat: Dultzainaren Eguna, irailan. Araba, Errioxa, Nafarroa... txoko askotako dultzaineroek herriko bazter guztiak, "doinu magikoz jantziko dituzte".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus ☎ 943 744 112 📞 688 634 044



Ermuaranbide kalean zulo handi bat dago: "Ermuarabide kaleko errepidean zulo bat dago aspalditik, eta handitzen ari da. Autoaren gupila zulo horretan ez sartzeagatik, gidari asko kontrako norabideko erreian sartzen dira, eta hori arriskutsua da. Istripu larriren bat gertatu aurretik, eskertuko genuke konpontzea". Udaleko arduradunek jakinarazi dute aurtengo aurrekontuetan aurreikusita dutela Ermuaranbide kaleko zati "nabarmen" bat konpontzea.



Herritar batek uste du norberak sortutako zaborra zakarrontzira bota behar dela gogorazteko kanpaina orokor bat bultzatu beharko lukeela Udalak: "Zure txakurra, zure ardura kanpainaren harira, herria zaintzeko kanpaina bat ere behar da herrian. Lotsagarria da kaleak plastikoz eta zikinkeriaz beteta ikustea. Arregitorre inguruan bizi naiz, eta gure atari inguruan erreparorik gabe botatzen dituzte lurrera zorroak eta antzerako zikinkeriak. Ez zaigu burutik pasa ere egiten zaborra lurrera botatzen duen norbaiti kargu hartzea, ezta? Horien guztien kontzientzietan eragiteko kanpaina bat egitea ez legoke gaizki. Eta, noski, zaborra bota ahal izateko zakarrontzi gehiago jarri behar dira, herrigunetik urrunago dauden kale eta auzoetan bereziki".



Artekaleko eskailera mekanikoak hondatuta daude: "Artekaleko eskailera mekanikoak azken aldian hondatuta daude. Udalak esan zuen ez zeukala gune horretan igogailurik jartzeko asmorik, beste lehentasun batzuk zeudelako herrian, baina gutxienez, eskailera ondo funtzionatzen dutela bermatu beharko lukete". Hirigintzako arduradunak ondorengo azalpena eman du: "Mantenua egiten zaie herriko eskailera mekaniko zein igogailuei, baina oraingo matxura ez da mantenu faltagatik matxura izan. Transmisioa hondatu da, eta mekanizatu guztia berritu behar izan dute konpontzeko. Printzipioz, aste bukaerarako konponduta egongo dela aurreikusten dugu".



Mila esker Parrokiako katekistei eta Atxutxiamaikari: "Zailtasunak zailtasun, aurten Olenzero eta Mari Domingiren kalejira antolatu zuen Atxutxiamaikak abenduaren 24rako, eta katekistek Errege Magoen desfilea antolatu zuten urtarrilaren 5erako. Ez ziren ohiko kalejirak izan, eta pandemiara egokitu behar izan zituzten bi ekitaldiak, baina umeen ilusioa pizteko balio izan zuten. Pandemia honetan sarritan ahaztuak izan diren umeengatik egingdako ahaleginak txalo bero bat merezi du. Eskerrik asko!".

Gaur goizeko kontua izan:

Zerbait (albiste bat, kontu bat...) berria denean esan ohi da.

Apirilaren 1ean pasatuko da Korrika Elgoibartik



Euskararen alde, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan barrena, arineketan egiten den Korrika ekimenaren aurtengo ibilbidea prest du jadanik AEK-k. Amurrión (Araba) hasiko da Korrika eta Donostiara bitartean 2.180 kilometro egingo ditu herriz herri, martxoaren 31tik apirilaren 10era. Elgoibarrera apirilaren 1ean iritsiko da lekukoa, aurreikusitakoaren arabera 10:16an. Eibartik ekarriko dute eta Elgoibarren eskutik eskura pasa ondoren Soraluzekoei emango diete herritarrek. Donostiako Bulebarrera apirilaren 10ean iritsiko da eta aurtun amaierako mezua zeinek irakurriko duen ez da lasterketa bukatu arte jakingo. Hala ere, antolatzaileek jakinarazi dute omenduak Pirritx, Porrotx eta Marimotots izango direla euskararen sustapenean "eragile aktibo" direlako. Hitzekin lelopean Sustrai Colina bertsolari eta kazetariak ipini dizkio Korrikako kantuari hitzak eta Nerea Urbizuk, Ane Garciak eta Anarik abestu dute.

Ruper Ordorikaren kontzertua izango da urtarrilaren 28an

Ruper Ordorika kantari oñatiarrak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian urtarrilaren 28an. 20:30ean hasi eta ordu eta erdi inguruko emanaldia izango da.

Joan den azaroan *Amour eta toujours* lana argitaratu zuen eta disko berriko abestiak entzuteko aukera izango da kontzertuan. Ibilbide luzean, tradizio herrikoiarekin egin du bat Ordorikak eta nazioarteko musikariak ere lagun izan ditu. Lan berriak ere Kubako doinuak oinarri ditu eta musikari kubatarrekin grabatu zuen. Biran ere musikari kubatarrik egongo da, izan ere, sei lagun izango dira taula gainean: Mugalariak, Eduardo Lazaga perkusionista kubatarra eta Nando de la Casa.

Musikariak Kubako egonaldietan jasotako bizipenak dira kantuen oinarri, berak idatziak gehienak, baita Joseba Sarrionandiaren eta Eva Linazasorenak ere; eta aurrez argitaratutako bi kanturen moldaketak ere.



Etxegiña taldea ez da santa eskean irtengo bigarren urtez

Pandemiaren eraginez bertan behera laga zuten iaz santa eskea Etxegiña taldekoek, eta jakinarazi dute aurtun ere ez direla irtengo, osasun baldintzak ez dutelako horretarako aukerarik ematen. "Pena handiz" hartu dute erabakia. Dena dela, iaz bezala, kontu korrante bat jarri dute, nahi duenak diru ekarpena egin dezan, egoera zaurgarrian daudenei laguntzeko. Etxegiñak santa eskean batzen duen dirua Caritasi ematen dio. Iaz, 785 euro batu zituzten enpresek eta norbanakoek egindao ekarpenei esker. Hauxe da kontu korrantea: Laboral Kutxa: 3035 0007 23 0071019042

Annie Funnyren ipuin kontaldia ingelesez, martitzenean liburutegian

Urtarrilaren 25ean bi ipuin kontaldi izango dira liburutegian, LHkoentzat 17:00etan eta 17:30ean LH2 eta LH3koentzat. Ohiturari jarraituz, urtean behin ingelesez egiten dute ipuin saioa eta oraingo emanaldia izango da hori. *Short stories* izenburupean beste hainbat urtetan etorri den Annie Funnyk kontatuko ditu umeentzako ipuinak. Emanaldira joan nahi dutenek aurrez izena eman behar dute liburutegian.

'Greenpiss' antzezlanak gaur eskainiko du Yllanak

Joan den barikurako iragarri eta atzeratu egin behar izan zuten, gaur, barikua, *Greenpiss* antzezlanak ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian, 20:30ean. Yllana konpainiako lau aktorek hainbat paperetan (politikarrietatik hasi eta animaliak ere interpretatzeraino) ekologismoari, planetaren etorkizunari eta gure espeziearen biziraupenaburuzko satira zorrotza eskainiko dute eta ikusleak barrez lehertaraztea da asmoa.



▶ UXUE ALBERDI

BERTSOLARIA

‘Ez da kasualitatea’ bertso saioa izango da gaur, Erreminta Makinaren Museoa. Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Onintza Enbeita bertsolariak arituko dira Maite Berriozabalen esanetara kantuan, Gari Otamendi eta Ixak Arrutiren musika lagun. Egitasmoaren berri eman du Uxue Alberdik elkarrizketan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

“Saio honek baimentzen digu libre, ausart eta umorez kantatzea”

♦ Zer da ‘Ez da kasualitatea’?

Asmo feminista daukan bertso saio musikatu da, bertsolari eta gai jartzaile emakumezkoek osatua. Enkarguzko saio feminista batekin hasi ginen eta gerora ehunka saio egin ditugu. Saio hauetan 30-40 bertsolarik hartu dugu parte.

♦ Denak emakumezkoak, ezta?

Gehiengoa emakumeek osatu dugu. Asmo feministako saioak izateaz gain, emakumeek kantatzeko aukera gehiago izan ditzagun sortuak dira. Saio askotan emakume bakarra edo asko jota bi izaten ginen eta artistikoki ez genuen elkar ondo ezagutzen.

♦ Neskek elkarrekin kantatzeak ezberdintzen al zaituzte?

Elkarrekin kantatzea beharrezkoa da hainbat gairen azpigiaren xehetzeko, gure arteko umorea bilatzeko eta gure arteko berdintasun eta ezberdintasunetan sakontzeko. Jendeak salbuespenzat hartzen gintuen saioetan eta neska izatea zen gure marka. Hiru-lau bertsolari kantuan jarritz gero, ohiko saioetan ezberdintzen gintuen elementua komuna zen eta arreta gehiago jarri dezakete bertsolari bakoitzaren berezitasunetan: umorea, estiloa, gaiak, jakintzak...

♦ Gaiak ere emakumeentzat bereziki prestatuak izaten dira?

Gai jartzaileak, gure kontraesanetan arakatzuz, orain arte egin gabeko umore motak eragin ditzake, esaterako. Elgoibarko saioaren berezitasuna tokia, Makina Erremintaren museoa ere bada. Maite Berriozabalek ipiniko ditu gaiak eta museoko zuzendari Bea Ansolak esandakoak gai bihurtu ditzake, emakumezkoen industriako papera, adibidez, iragana, gaurkoa eta etorkizuna uztartzen.

♦ Zergatik da berezia zuretzat ‘Ez da Kasualitatea’?

Kontrako ezarririk libururako bertsolari askok aipatu zuten bertso saio guztietan kantatzeak ilusioa egiten badie ere, *Ez da kasualitatea* saio bat festa bat dela beraietzat. Ereku publikoan jarduten garen emakumeek sartu gara gizonezkoek taxututako egintzetara. Guk arauak barneratu ditugu eta horien barnean ere disfrutatzen dugu. Baina, liburuan bereiztu nituen festara gonbidatua izatearen sentsazioa eta norbere festa propioa antolatzearen arteko aldea; ohiko saio batetik *Ez da Kasualitatea* saiora egon

daitekeena. Beste saio askotan, nahiz eta eskarmentudun bertsolariak izan, batzuk sentitzen dute gainerako bertsolariei demonstratu beharra gai direla eta talentua daukatela. Saio hauetan onarpen batetik abiatzen gara eta honek baimentzen digu libreago kantatzea, esperimentatzea, ausartagoak izatea, umore handiko saioak izaten dira. Bertso oso biluzia eta soila da, eta beldurrak zurruntzen gaitu askotan. Hori malgutzen denean gorputzetan, ahotsetan, gaiei heltzeko moduan ikusten dira konplizitatearen ñabardurak. Sortu ditugu elkarrekin jarduteko eta pentsatzeko guneak, bakoitzak bere erara, baina sentitu dugulako festara gonbidatua izatearen sentsazio deseroso hori.

♦ Zuk erosoago kantatzen duzu ‘Ez da kasualitatea’ saioetan?

Festa izateak ez du esan nahi *Ez da Kasualitatea* saioetan bertsotan egitea beti erraza denik, baina zailtasunak bertsoa osatzeak berez dauzkanak dira, ez hainbeste testuingurua kudeatu beharrenek eta horrek asko laguntzen du beldur faltatik eta onarpen eta talde sentsaziotik abiatzea.

♦ Musikarekin kantatzeak gehiago gerturatzen du entzulea?

Saioa baino lehen elkartzen gara probak egiteko eta horrek sortzen du taldetasuna, batasuna. *Ez da Kasualitatea* bertso saioetan zaletu da jende dexente. Beste publiko batengana iristeko ere balio izan du eta musikak beharbada izan du zerikusirik. Musikari oso onak dauzkagu eta oso atsegina da entzuteko.

♦ Elgoibarko saiotik zer espero duzu?

Niretzat Elgoibarren kantatzea beti da beste herrietan kantatzea baino zailagoa, norbere herrian bertsolari kareta jartzea ez da hain erraza. Sentitzen dut aurrean daudenek ikusiko ditzutela norberak ikustea nahiko ez litzuzkeen hainbat gauza. Baina oso polita da oso gertuko sentitzen dugun komunitatearentzat kantatzea. Ilusioa egiten dit lekuak, oso polita da makina zaharren artean kantatzea. Lekuak berak inprimatuko du bere izaera saioaren barruan eta lagunduko digu seguraski gorpuzten beste garai batzuetako eta gurea ez bezalako beste langintza batzuetako emakumeak. Nire asmoa disfrutatzea da.

Iñaki Oliden oriotarraren idi pareak gailendu da Saizar Sariko finalean

Gipuzkoako Kintopeko Ligako finala, Saizar sariketa, jokatu zuten Sigmako probalekuan San Anton Egunean. Denboraldian zehar onenak izan diren Gipuzkoako kintopeko hiru idi pareak aritu ziren lehian, eta Orioko Iñaki Olidenean idi pareak, *Rubiok* eta *Gorrik*, egin zuten markarik onena. Ordu-erdian 56 plaza egin zituzten 1.700 kiloko harriarekin. Bere idien itzain lanetan jardun zuten Olidenek azaldu zuenez, Elgoibarko probalekua nahiko irristakorra da, eta idiak ez ziren batere seguru ibili hasieran, nahi baino gehiagotan labaintzen baitziren. "Eguraldi oso hotza egin zuen, eta horrek ere ez zuen lagundu. Pixkanaka, idiak lasaitzea lortu genuen, eta zorionez, konfiantza hartzen joan ziren. Hala, lan aparta egin zuten, proba 56 plaza eginda amaituz". *Rubio* eta *Gorri* idiek egin zuten lanarekin oso pozik dago Oliden. "Elkar errespetatzen duten idiak dira, bikote oso ona osatzen dute. Momentu zailetan, badakite elkarri laguntzen". Lezoko Olazarren idi-pareak lortu zuten bigarren postua Elgoibarko finalean 54 plaza eginda, eta Errezilgo Bixkien idiek 51 plaza egin zituzten.



Haundi, 'invictus' lehen itzulia

Haundi futbol taldeak partida bakar bat galdu gabe amaitu du lehen itzulia, Ohorezko erregional mailan. Sekulako marka da, azkenegoz 1945-46 denboraldian eskuratu baitzuten, duela 75 urte. Pedro Barrenetxeak ohartarazi du BARREN datu horretaz, eta zehaztu duenez meritu handiagoa du Haundik orain lortu duen porrotik gabeko lehen itzuliak, 18 talde ari baitira lehian Haundirekin eta 11 ziren joan den mendeko erdialdera jokatu zuten liga hartan. Koldo Lizarraldeek C.D. Elgoibarren mendeurrenaren harira argitaratu zuen liburuan jasota dauden datuak erabili ditu iturritzat. Partidarik galdu ez duen arren, sailkapeneko bigarren postuan dago Haundi, 35 punturekin, liderra den Touring taldeak baino puntu bat gutxiagorekin. Lehen itzulia jokaturako 17 partidetatik bederatzirik irabazi eta zortzi berdindu ditu Haundik. Lau partida irabazi ditu Mintxetan eta beste horrenbeste berdindu, eta etxetik kanpora bost garaipen eta lau berdinketa eskuratu ditu Pablo Turrillasek entrenaturako taldeak.



Ibon Baskarnek garaipen batekin estreinatu du snowboard lehiaketetan hasi duen ibilbidea

Snowboard Génération Pyrénéen txapelketan lehiatu zen Ibon Baskaran Beristain elgoibartarra, esalom erraldoia modalitatean, urtarrilaren 15ean, Frantziar Pirinioetan dagoen La Mongie estazioan. 9 urteko elgoibartarrak emaitza ezin hobea eskuratu zuen lehiatu den estreinako proban. Goizean bi txanda jokatu zituzten, eta horietako batean eginiko denbora onena hartzen zen kontuan azken sailkapenerako. Baskarnek egin zuen denborarik onena eta 2 segundo eta 50 ehuneneko aldea atera zion bigarren sailkatuari. Arratsaldean jaitsiera bakarria egin zuten eta hor ere azkarrena izan zen Baskaran; segundo bat eta 63 ehuneneko aldea atera zion bigarrenari. Beristain 7 eta 11 urte artekoen mailan lehiatu zen. Luz Ardideneko Ski Toy taldeko kidea da elgoibartarra, pandemia hasi zen urtetik, 2020tik. Hori dela-eta, honakoa izan da lehiatu ahal izan duen aurreneko lasterketa. Hurrengo lasterketa Saint Lary eski estazioan jokaturiko dute, urtarrilaren 29an. Frantziarako Koparako puntuagarria den Bank esalom kategoriako proba izango da.



Igoa eta Arbizu nafarrak gailendu dira San Anton Pilota Txapelketan

San Anton Pilota Txapelketaren bi finalak, promesa eta senior mailetakoak jokatu zituzten bariku gauean Ikastolako frontoian. Hotz egiten zuen arren harmailak bete xamar ikus zitezkeen. Promesa mailako finala jokatu zuten lehenik eta Aimar Egigurenek eta Martxel Iztuetak osatutako bikoteak 22-15 irabazi zion Unai Amianok eta Ugartemendiak osatutakoari. Egiguren aurrelari azpeitiarrak eta Iztueta tolosarrak osatutako bikoteak hobeto hasi zuten finala eta aurkariak egin zituzten zenbait huts prostuz, errenta polita lortu zuten markagailuan. Partidaren bigarren zatian alde murriztea lortu zuten Amianok eta Ugartemendiak, baina ez zuten partida iraultzerik lortu. Martxel Iztueta atzelaria aukeratu zuten finaleko pilotaririk onena. Senior mailako partidak ez zuten kolorerik eduki, edo beste batera esanda, kolore bakarra izan zuten, gerriko urdina jantzi zuten Igoa eta Arbizu nagusitasunez gailendu baitziren. Zazpi tantoan laga zituzten Mata eta Morgaetxeberria. Azken honek, Morgaetxeberria amorebietarrak, promesa mailako txapela jantzi zuten 2020an jokatu zen San Anton Txapelketan, orain arte jokatu zuten azkenengoan, iaz ez baitzen egon lehiarik, pandemia dela-eta. Hala, ezin izan zuten maila nagusiko txapela ere etxera eraman. Irurtzun elkarteko Aaron Arbizu eta Oberena elkarteko ordezkari Josu Igoak, biak Etxarri Aranazkoak, gailendu ziren. Bikote sendoa osatu zuten, eta uneoro menpean eduki zituzten aurkariak. Nagusi izan ziren atzeko koadroetan zein aurreko koadroetako jokaldietan. Finaleko pilotari onena Arbizu aukeratu zuten.



Sanloko nesken eta mutilen jubenil taldeek Elgoibarren jokatu dituzte promozio faseak

Euskadiko Eskubaloi Txapelketaren azken fasera sailkatzeko promozio txapelketa etxean jokatu dute CIMDE eta Deca taldeek. Izan ere, Sanlo eskubaloi taldeak antolatu du Euskadiko txapelketako jubenil mailako promozio fasea, neskena zein mutilena, Euskal Eskubaloi Federazioaren laguntzarekin. Hala, zortzi talde arituko dira lehen, gaurtik domekara bitartean, Elgoibarren: Olaizaga kiroldegian neskek eta IMH kiroldegian mutilak. Jubenil nesken CIMDE Sanlo taldeak Muskiz taldea izango du aurkari lehen partidatan, barikuan, 17:45ean. Zapatuan Oñatiko Aloña Mendiren aurka jokatu



du (10:00) eta hirugarren eta azken partidatan, domekan, San Adrian taldearen aurka jokatu dute (12:00). Deca Sanlo mutilen jubenil taldeak, berriz, Creados Pulpo Zumaiako taldearen aurka jokatu du promozio aurreneko partida, barikuan, 19:30ean, IMHn. Zapatuan Beltzagorri Santutxu taldea izango dute aurkari (12:00) eta azken neurketan Trapagaran (12:00). Partidak ikusteko aforoa mugatua izango da, eta COVID-19 ziurtagiria erakutsi beharko da kiroldegietan sartzeko.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 631 229 408

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka. Asteburuetan ere bai. Malt gutasuna daukat. ☎ 667 228 395

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat eta euskalduna naiz. Orduka. ☎ 626 490 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 688 735 551

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat sukalde laguntzaile eta garbiketa lanetan. ☎ 602 379 575

Adinekoak ospitalean edo etxean zaintzeko prest nago. Profesionaltasun-ziurtagiria daukat. Orduka lan egiteko prest. Esperientzia handia. ☎ 660 511 781

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen, etxeko garbiketa lanetan eta administrazioan. Administrazio Kudeaketan titulatu naiz. ☎ 642 403 764

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen eta etxeko garbiketa lanetan. ☎ 643 071 900

Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest nago. Orduka, eta gauzez ere bai. Adinekoak zaintzen, sukaldean eta garbiketarako lanak egiten esperientzia daukat. ☎ 625 910 116

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketarako lanak egiteko edo beste edozein lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. Agiriak legez ditut, eta gidabaimena eta autoa ere baditut. ☎ 689 571 882

Arratsaldetan LHko eta DBHko eskola partikularrak emateko prest nago. Gizarte Lana, Gizarte Hezkuntza eta Psikologiako graduak ikasten ari naiz. ☎ 649 446 529

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta baita aste-bukaeretan ere. ☎ 631 425 686

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta baita aste-bukaeretan ere orduka. ☎ 643 584 198

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko prest nago. Arropak garbitzen eta lisatzen esperientzia daukat. Ospitalean gauak pasatzeko ere prest nago. ☎ 643 427 770

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean ere bai. Igeltsero, pintore, edo fresatzaile lanetarako ere prest nago. Paperak legez ditut. ☎ 634 692 962

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko prest nago. ☎ 688 739 536

Eskaintza

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu. Goizez eta arratsaldez. ☎ 676 298 561

Bi mekanikari behar dira, doikuntza eta muntaia lanetarako. Curriculum Vitaeak Zarauzko 309 posta-kutxatilara bidali behar dira.

Zerbitzari euskalduna behar da. ☎ 652 746 246

GARAJEAK.....

Garaje marraduna alokatzen dut, Pedro Mugurutzan 11n. ☎ 669 916 148 / 943 531 648

BESTELAKOAK.....

Orbea Loopy umeentzako bizikleta salgai. 8-12 urtekoentzat, 24". Egoera onean. 60 euro. ☎ 600 798 602



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
 Euzkoaldea (Euzko) Administrazioaren Kontseilua



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean hainbat estolderia konponketa egin behar dira lokal huts batean. Lanak ez dira egin orain dagoen estaldura-material berbera ez delako aurkitzen eta lokalaren jabearekin adostasunik ez dagoelako, lokaleko lur guztia aldatzeko eskatu baitu. Denbora tarte horretan jabeak lokala alokairuan izan du eta maizterrak bainugela bateko instalazioa aldatu duenez, ordaintzeko eskatu du. Jakin nahi nuke ea komunitateak derrigorrez lokaleko estaldura material guztia aldatu behar duen, eta maizterrak egin duen bainugela ordaindu behar dugun gune honetan hainbat lan egin behar zirela jakinik.

Arazoa izango da elementu komunetan konponketak egiten badira eta komunitateak jabetza pribatuko obretan parte hartzen badu, komunitatea estetika kalte guztiak ordaintzera derrigortuta badago. Nire ustez, konponketa eta kalteen artean estetikoak badaude eta hauek ezbeharrak edo kalteen konponketak sortutakoak badira, egin beharreko lanetan erabiliko den estaldura materiala aurrez zegoenaren antzerakoa izan beharko da. Beraz, komunitatea derrigortuta egongo da lokal guztiko materiala aldatzera, nahiz eta egoera negargarrian egon, lurra harrotuta edo hau material ezberdinekin estalita itxurarekin eta materialekin bat etorri arren, hau da, oinarritzko ezauzgarriekin eta merke eginda.

Aholkua: Komunitateak ez du derrigorrez aldatu beharko maizterrak gerora egindako bainugela, izan ere, honek bazekien gerora lanak egin behar zirela gune horretan, eta hala ere, ez zuen horren ardurarik hartu.

ASESORIA GO/R
AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
 San Bartolome, 2



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Hai-zea!** Igandean 9 urte potolo beteko dituzul! Jarraitu orain bezain alai. Patxo pila bat familiako guztien partez.

Zorionak, **Beñat,** gure etxeko txapel-dunari! 4 urte potolo gaur! Ondo-ondo pasa, eta muxu handi bat etxeko guztien partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranao
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel: 943 740 704 - 639 067 337
Astekarenetik ostalera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Keopandegi zerbitzua daukagu. Dena ardua hartzeko.

EXPRESS ESKAINTZAK!

COMBI BALAY 3KFE763MI HOZKAILUA

599 €



- 203 cm-ko altuera
- No frost
- 368 litroko edukiera
- Altzairu matea
- Hatz arrastoen aurkakoa
- 203 x 60 x 66 cm
- Haragi eta arraintzako *ExtraCold* kaxoiak
- Fruta eta barazkientzako *ExtraFresh* kaxoiak

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Merkealdia!

%25

- ★ Neguko izaretan
- ★ Sherpa edredoietan
- ★ Manta guztietan



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

21 BARIKUA

19:00 Bideo foruma: 'Alma salvaje'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Hai-zeak antolatuta, Lilan.

19:00 Bertso saio musikatua: 'Ez da kasualitatea'. Erreminta Makinaren Museoak eta Udalak antolatuta, Erreminta Makinaren Museoa.

20:00 Elkarrateratzea: Covid pasapor-teari, ez. Irtzargailua taldeak deituta, Kalegoen plazan.

20:30 Antzerkia: 'Greenpiss'. Yllana antzerki taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

22 ZAPATUA

11:00 Filatelia Elkarten Euskal Federazioaren urteko lehen batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

13:00 Zigilu erakusketaren amaiera ekitaldia. Elgoibarko dultzaineroak omenduko dituzte eta bildumagileei eskerrak emango dizkiete. Kultur Etxeko so-
toan.

24 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabe-kuntza tailerra: 'Kristalezko sabaia'. Loredi Salegik eskainiko du. Lilan.

25 MARTITZENA

17:00 eta 17:30 Ipuin kontalaria: Annie Funny ipuin kontalariaren saioa, Udal Liburutegian. Lehen saioa LH1eko umeentzat izango da, eta bigarrena, LH2 eta LH3koentzat.

26 EGUAZTENA

19:00 Epeletan literatura tailerra: Har-kaitz Canoren 'Fakirren ahotsa' liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

28 BARIKUA

20:30 Kontzertua: Ruper Ordorika. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Matrix resurrections'
22 zapatua: 19:00 / 22:15
23 domeka: 19:00
24 astelehena: 21:00

'El valle de las linternas'
23 domeka: 16:30

'La ruleta de la fortuna'
(Ongarri zinekluba)
26 eguaztena: 21:00

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

'EL DROGAS' KONTZERTU AKUSTIKOA. URTARRILAK 28, 20:30EAN, ERMUA ANTZOKIAN

Enrique Villarrealek poema eta idazkien liburua argitaratu du eta baita, disko bat ere idatziei laguntzeko. Modu akustikoan ari-tuko da beste sei musikarirekin batera. Sarrerak salgai daude Kutxabanken, 12 euroan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
21 BARIKUA	22 ZAPATUA	23 DOMEKA	24 ASTELEHENA	25 MARTITZENA	26 EGUAZTENA	27 EGUENA	28 BARIKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola
* Fernandez: Herriko enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gabez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui. Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106	



Maria Aguirre Eizaguirre

2022ko urtarrilaren 12an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Izagirre Epelde

2022ko urtarrilaren 13an hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Maria Pilar Barruetabeña Barruetabeña

2021eko urtarrilaren 4an hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen du
urteurreneko mezara agertu izana.



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN baserrietan jasotzen dutenentzako oharra



Hemendik aurrera Correos-ek banatuko du BARREN aldizkaria baserrietan, beraz,
ez duzue barikuan bertan jasoko.
Helbidea aldatu baduzue edo ez baduzu astekaria jasotzen, jarri gurekin harremanetan.
Barkatu eragozpenak.

Harremanetarako: **943 744 112** edo barren@elgoibarkoizarra.eus

ikastolak

HEZKUNTZA ERALDATZEN



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus

elgoibar@elgoibarikastola.eus

Aurre-matrikulazioa:
urtarrilaren 17tik 28ra

943 74 44 41

Jarri gurekin harremanetan,
bertatik bertara ezagutzeko

www.ikastola.eus



ikastolenekartea